

Dauden estaldurak **osaten** ditu, eta **poliza hobetzeko** aukera ematen du

## Kutxabankek etxeko aseguruari 'Premium Pack' izeneko aukera gehitu die

- **Poliza berri bat formalizatzean edo lehendik dagoen bat berritzean kontrata daiteke**
- **Kutxabank Segurosek aurten poliza berrien ekoizpena % 20 handitu du**

**2022ko ekainaren 6an.** Kutxabank etxeko aseguruari 'Premium Pack' berritzailea merkaturatzen hasi da. Honela, bere polizek eskaintzen dituzten **estaldurak eta zerbitzuak zabaltzeko aukera** ematen du, Euskadin **negozio bolumenean liderra** den esparru batean.

**Osagarri** hau polizen estaldura hobetzen duen **pakete bakar eta itxia** da. Bere bitartez, aseguratutako kapitalaren muga nabarmen handitu daiteke eta besteak beste Esku-trebe Zerbitzua deritzona eskaintzen du, polizen erabilera zabaltzeko.

Kutxabank 'Premium Pack' berriaren abantailetakoa bat da poliza berri bat formalizatzerakoan zein lehendik dagoen bat berritzean kontratatu daitekeela, eta horrek poliza **premium mailako produktu batean** bihurtzeko aukera ematen dio aseguratuari.

Paketeak **Esku-trebe Zerbitzua** eskaintzen du, etxeko konponketa txikietan eta mantenu lanetan profesionalen laguntza izateko, **urak sortutako kalteak konpontzeko** estaldura zabaltzen du, **ur-isuriek** eragindako kalteen estaldura aintzatesten du, **kristalak, leihoak eta ispiluak hausteagatik** sortutako estaldurak hobetzen ditu, etxeko **sarrailak eta giltzak galdu edo lapurtzeagatik** hauek aldatzea ere kontutan hartzen du.

Horrez gain, **erantzukizun zibileko estaldura 600.000 eurora** zabaltzen du istripu bakoitzeko, eta **kontinentearen zaharberritze estetikorako** aseguratutako zenbatekoa **1.800 eurotik 4.800 eurora** arte zabaltzen du.

Aurten Kutxabank Segurosek bere merkataritza-jarduera onari eutsi dio urteko lehen hilabeteetan, eta **produktio berriari hazkunde nabarmena** izan du, bai polizetan nola primetan.

Banku-negoziari egiten dion ekarpen errepikaria ikusten da urteko lehen lau hilabeteetan **35.000 poliza berri** baino gehiago merkaturatzean, iaz garai berean baino **% 20** gehiago.

Kutxabank Segurosek **Euskadiko aseguru en alorraren lidergoan** jarraitzen du, negozio bolumenari dagokionez nagusi baita **Etxebizitza eta Bizitza Arriskuko** aseguruetan (aurrezki aseguru barne), bai eta **heriotzaren arloko** primen negozio berri ere.

---